

The Breadwinner, JB eta lehenengo aldiz euskarazko azpigituluekin

The Breadwinner. Irlanda (2017)

93 min.

Zuzendaritza: Nora Twomey.

Gidoia: Anita Doron, Deborah Ellis.

Animazioa. Drama.

Parvana talibanen agindupean dagoen Kabul-en bizi den hamaika urteko neska bat da. Bere aita atxilotzen dutenean, familia baliabiderik gabe geldituko da. Emakumeek debekatuta dutenez dirua irabaztea, Parvana mutil batetan bihurtuko dute lan egin ahal dezan.

Datorren abenduak 30-ean *The Breadwinner* eskainiko da **Trueba zinemetan arratsaldeko 19:30tan, lehenengo aldiz euskarazko azpigituluekin**, *Kresala zineklubak* euskara zinema munduan eta kultur arloak sustatzeko aurrera eramaten dituen ekintzen barnean.

The Breadwinner, 2018 Oscar sarietara animaziozko pelikula onenerako izendapena jaso zuen, familia eta emakumearen ahalduntzea ardatz duen imajinazioz gainezka egiten duen ipuin zoragarri bat da. Istorioa talibanek kudeatutako Afganistanen kokatzen da. *The Secret of Kells* filmeko lantaldeak berriz ere kultura, edertasuna eta historiari gorazarre ginez opresiori aurre egiteko modua dakarkigu. Euskal Herrian lehenengo aldiz eskainiko da areto komertzialetan filma hau.

Lehenago **Kresala zineklubak** zinemagintzan euskararen zabal-kuntzarako proiektuak aurrera eraman arren, lehenengo aldia da horren tamaina handiko proiektua abiarazten duela. Gune hau euskal familiekin kalitatezko animazioa areto komertzialetatik haratago konpartitzeko intentzioarekin sortzen da, horrela publiko zabal eta berriago batengana zinekluben kultura zabaltzeko asmoz. Proiektu hau **Kresala Zineklubak** aurrera eraman ahal du **Gipuzkoako Foru Aldundiari** baita **El Sur Fims** distributzaileari esker.

Kresala Zineklubak azpigituluak sortu ditu euskaraz, Filma DCP eta Blue-Ray formatuetan argitaratu ditu. Honi esker *Nora Twomey*ren lanaz gozatzeko aukera egongo da. Horretarako filma proiektatzeko asmoa duten elkarteek Kresala zineklubarekin jar daitezke harremanetan, komertzialki eskaini nahi bada berriz El Sur Filmsekin (www.elsurfilms.com), berak bait ditu filma komertzialki proiektatzeko eskubideak.

Informazio gehiagorako bisitatu gure webgunea

www.kresalazinekluba.com

edo kresala@kresalazinekluba.com helbidera e-posta bidali

